



BARREN

TOKIKOM

Oporretan ere, zaindu

**GARAI ZAILENETAN ERE ZURE ALBOAN GAITUZU,
BEHAR DUZUNERAKO**



**INPLANTE PROMOZIO BERRIA
%15EKO DESKONTUA PROTESIETAN**

*MILA ESKER KONFINAMENDUTIK GAUR ARTE
GURERA ETORRI DIREN BEZERO GUZTIE!*

943 36 63 77

RPS 181/19

 **aldaz**
hortz klinikak · clínicas dentales
Lasarte-Tolosa-Elgoibar

Oporraldia!

atsedena hartzera goaz!

Irailaren 1ean bueltatuko gara, entitateak izena ematera animatzeko.

Irailaren 27a izango da entitateek izena emateko azken eguna.

Irailaren 24tik aurrera, berriz, norbanakoen txanda izango da.

Lehen edizioan 1.803 lagunek eman zuten izena Elgoibarren.

1.245 ahobizi

558 belarriprest

**Erabakiak eta konpromisoak norbanakoenak
izan ziren lehen edizioan.**

**Bigarrenean, entitateek ere izango dute haienean
euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko prest
daudela erakusteko aukera.**

Egiten duguna gara!

Egin dezagun!

Izan gaitezen!



3 BLOK dekorazioa **943 741 552**
606 431 120

*Eskerrik asko, bezero.
Abuztuan ere zuekin!*

Uparitzaga, 14 - Elgoibar biok@biokdekorazioa.com



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX


AGURTZANE
c.b.
ileapaindegia

Fotodepilazioa egiten dugu
MILA ESKER, BEZERO!
ABUZTUAN
EMAREN ASTEAN IAN ERK
GURETAN KUENIN BANGO GARA!

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

BM Termoplastiko eta Konpositeen
Mekanizazio lanak
Metal Ez-Ferrikoak
bronymec



Mila esker gure lana aurrera ateratzen laguntzeagatik.

 @BronymecSA



BELAUSTEGI BASERRIA
jatetxea restaurante

Eskerrik asko, bezero!



www.belaustegi.com

San Migel Gaina z/g
Tel. 943 74 31 02

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► CINEMA PARADISO

Soinu-banda Ennio Morriconek konposatu zuen ("Ciao Maestro"), garai hartan kontserbatorioan ikasten zuen Andrea semearekin batera. 1988an Cinema Paradisok, bere azken eszenekin, garai guzietako amaierarik hunkigarrienetako bat oparitu zigun, zinema-erakustaldiaren ofizioari eta zazpigarren arteari benetako omenaldia. Aire libreko zineman programatzeko zorte handia izan nuen Giuseppe Tornatorek egindako bigarren film luzea. Denok malko mingotsekin utzi gintuen. Maitasun mingotsez, adiskidetasunaz, zinemarekiko maitasunaz eta agurrez hitz egiten du. Agurrei buruz ari garela, hemendik, agur berezi bat egin nahi diot 2020ko ekainaren 17an Elgoibarren hil zen Andres Odriozola jaunari (Goian Bego). Andresekin izan nuen adiskidetasuna urte askotakoa da, eta lan asko egin genuen elkarrekin Ongarri Zine Klubean. Gaur gogoan dut 'Andres, zurekin hitz egin behar dut' esan eta Aire Libreko Zinema egiteko nuen proiektua nolakoa zen komentatu nion eguna. Zenbait egunetan ez zidan ezer esan, baina egun batean, iritsi nintzen eta esan zidan: "Iñaki, es un proyecto de fisil, pero vamos hacer". Proiektua lantzen hasi ginen. Kapitolioan botata zegoen Odeonen proiektore zaharra muntatzea lortu arte denbora asko behar izan genuen, baina egun batean, argia egin zitzaigun; lortu genuen.

Adiskidetasun ederrak elkartu gintuen, zinemarekiko maitasunean oinarritutako adiskidetasunak. Askotan komentatzen genuen Udalak egin zigun kaltea eta Kultura Sailak Zine Klubarekiko izan duen begirune eskasa, eta okerrera da, gainera, gaizki egiten jarraitzen dutela. Niretzat Andres nire proiektionista eta lankidea zen, baina Elgoibarko Proiektionista izan zen, eta hemendik, Andres, zauden tokian zaudela, Zine Klubean egin duzun lana ai-






ortu nahi dizut eta esan Aire Libreko Zinemarekin egin digutena ez dela normala Udal Demokratiko batean, eta gurea dela esaten eta eskatzen jarraituko dudala. Aire libreko zinema ez da zuena, politikari elgoibartarrok. Gauza bat da Kultura egitea eta beste bat politikariak Kultura egiten dugunon lanaz baliatzea beren onura politikoetarako. Gaur egungo munduan, arlo politikoan zein sozialean bizi dugun krisiarekin, zinemak gogorarazten digu denok egin dezakegula eta egin behar dugula amets. "Jaun politikoak, amesten jarraituko dugu eta berandu baino lehen espero dut zuek konturatzea ez dela Kultura Saila Kultura egiten duena, sortzaileak baizik". Sortzaileei lagunduko dien kultura-plan bat behar dugu, langile sortzaileek beren lana bizi dezaten, lehenik eta behin bizirik iraun ahal izateko, eta gero, etorkizun bat garatu ahal izateko, hurrengo belaunaldiak inspiratzeko, eta ez ostikorik atean. "Hagas lo que has, ámalo". Horixe egin genuen eta egiten jarraituko dugu. Betirarte, Andres. Eskerrik asko zure arteagatik, zure magiagatik eta Osoko Bilkuren Aretoko Zinema eta Aire Libreko Zinema posible egiteagatik. Zineman ikusiko dugu elkar.

Iñaki San Martin

► OHARRA

Esku artean duzuen BARRENA uztailleko azkena da. Covid19aren ondorioz aurten ez da San Bartolome jairik ospatuko, eta beraz, BARRENEK ez du jaien inguruko ale berezirik kaleratuko abuztuan. Irailaren 4an jasoko duzue ikasturte berriko lehenengoa. Ordura arte, zaindu zaitezte eta ondo pasa oporretan!

BARREN

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Euskarazko Topagunea</p>	<p>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR 943 744 112</p> <p>Publizitatea: 943 743 704 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zalaoa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIA Amaia Arrizabalaga KOLABORATZAILEAK Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR URDIA AYUNTAMIENTO</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>   <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>
--	--	---

Ostalaritzako establezimenduek eta diskotekek 01:30ean itxi beharko dituzte atea

COVID-19aren jarraipen batzordeak neurri berriak hartu ditu pandemiaren bilakaeraren azken datuen aurrean, eta asteburuan jarriko dituzte indarrean. Besteak beste, ostalaritzari eragin diote neurriek, eta aurrerantzean 01:30erako itxi beharko dituzte tabernak eta diskotekek. Hauek dira neurri berriak ekarriko dituen aldaketa nagusiak:

Ostalaritzaren eremuan

- ◆ Tabernek ezingo dute 01:30ak baino beranduago itxi, eta era berean, ezingo dute 06:00ak baino lehen zabaldu. Ordu erdi izango dute establezimenduak husteko. Neurri hori tabernetan, jatetxeetan, txokoetan eta elkarte gastronomikoetan aplikatuko da. Kanpokaldean, 24:00etatik aurrera, eserita eta terrazetan soilik kontsumitu ahalko da.
- ◆ Ekitaldiek 100 pertsona baino gehiago biltzen dituztenean, lokalaren gehieneko aforoak ezin izango du gainditu % 80ko portzentajea, eta bertaratuak gehienez hamar laguneko taldetan banatuko dira.

- ◆ Establezimendu guztietan 1,5 metroko distantzia fisikoa bermatu beharko da mahaien artean. Distantzia hori mahaietatik hurbilen dauden pertsonen artean neurtu beharko da. Gehieneko okupazioa hamar pertsonakoa izango da.

Gaueko aisialdia

- ◆ Diskotekek eta gaueko establezimenduek ere 01:30ean itxi beharko dute; % 60koa izango da gehieneko aforoa, eta dantza-pistarik gabe jarraituko dute (horren ordez mahaiak jarri ahalko dituzte).

Beilatoki eta ehorzketetan

- ◆ Beilatokietan gehienez 60 pertsona bilduko dira, bizikide izan ala ez, eta gehieneko aforoa % 60koa izango da leku itxietan. Beilatokietara ezin izango da joan adierazitako pertsonen kopurua gainditzen denean, denak aldi berean joan ez badira ere. Ehorzketetan ere gehienez 60 pertsona onartuko dira.

Berdintasuna sustatzen duten proiektuetarako 12.000 euro jarriko ditu Elgoibarko Udalak

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko helburuarekin sortutako programa eta proiektuak diruz lagunduko ditu Elgoibarko Udalak, Berdintasun Sailaren bidez. Guztira, 12.000 euro emango dituzte dirulaguntzatan. Lehenengo deialdia zabalik dago dagoeneko eta Elgoibarko elkarteetara zuzenduta dago. Deialdi horren barruan 6.000 euro emango dituzte berdintasuna sustatzeko programa eta jarduerak abian jartzeko. Laguntza eskatzeko epea abuztuaren 14ra artekoa da: <https://labur.eus/BerdintasunaDirulaguntzakElkarteak>. Era berean, baina, berdintasunaren aldeko programa zehatzak garatzen dituzte Elgoibarko emakumeen elkarteentzako dirulaguntzen deialdia ere zabaldu du Udalak. Beste 6.000 euro banatuko dituzte. Eskaera egiteko, honako beste esteka honetan sartu behar da: <https://labur.eus/BerdintasunaDirulaguntzakEmakumeenElkarteak>. Eskabideak aurrez aurre tramitatzea nahiago dutenek Herritarrentzako Arreta Zerbitzura jo behar dute (Santa Ana kalea, 2).

Egaña eta Santiagok irabazi dute Mendaroko padel txapelketako final handia



Zapatuan, Santio Egunez, jokatu zituzten Mendaron padel txapelketako bi finalak: elitekoa eta kontsolaziokoa. Final handian, elitekoan, Egaña eta Santiago bikote eibartarrak Gurrutxu eta Quintas herrikideak izan zituzten aurrez aurre, eta Egaña eta Santiago gailendu ziren, 6-2 eta 7-6ko emaitzarekin. Kontsolazioko taldean mendaroarrak lehiatu ziren elkarren kontra: Iñigo Zubiaurre *Beitxik* eta Joseba Mantecak osatutako bikotea Isaak Mancebo eta Axular Agirregabiriaren kontra, eta lehenengoek irabazi zuten. Lehenengo seta 6-4ko emaitzarekin galdutako arren, ondorengo biak irabazi egin zituzten, 6-4koarekin. Bukaeran errifaren zozketa ere egin zuten antolatzaileek eta jakinarazi dute 2.698 zenbakia izan dela saritua.

Herriko 30 eraikinetan dauden ikur frankistak kenduko ditu Elgoibarko Udalak



Elgoibarko Udalak jakinarazi du herriko hainbat etxebizitzetako atarrietan eta bestelako eraikinetan dauden ikur frankistak kentzen hasiko dela. Martitzenean, hilaren 28an, zabaldu zuen prentsa oharra, eta berez, atzo, eguaztena ziren lan horretan hastekoak. 30 eraikinetatik erretiratuko dituzte ikur frankistak eta zehaztu dute ikur gehienak atari zenbakiaren ondoan daudenak direla: Artetxe kalean 2. zenbakiko ataritik 27ra artekoetan daudenak eta Iñiguez Karkizao kalean, 1etik 5erakoak. Era berean, Iñiguez Karkizao kale horretako eraikin batean dagoen plaka handi bat ere erretiratuko dute. Etxe-jabeei eskutitza bidali diete, jakinaren gainean egon daitezzen. Goki Erreformak eraikuntza enpresak erretiratuko ditu ikurrak, eta Udalak 4.222 euro bideratuko ditu lanotara.

Jone Arriolaren 'Females' telesail proiektua Tabakalerako 2deko Sarietarako aukeratu dute

Donostiako Tabakalera Kultura Garai-kidearen Nazioarteko Zentroak 2deko Sariaren 2020ko deialdia ebatzi du, euskarazko ikus-entzunezko edukien 2deko laborategiaren bidez, eta aurkeztutako 99 proiekturen artean zortzi hautatu dituzte. Horietako bat da Jone Arriola elgoibartarraren web bidezko *Females* telesaila. Arriolak 22 urte ditu eta Ikus Entzunezko Komunikazioan lizentziatu berri da EHU-n. 2deoren deialdiaren helburua ikus-entzunezko edukietan oinarritutako proiektuak garatu eta prototipatzea da. Azaroa bitartean, 2deko laborategiak prestakuntza-saiok antolatuko ditu ikus-entzunezko proiektuak preproduzitzeko.



Jone Arriolak azaldu du proiektu honetarako lan taldea osatzen dagoela orain, eta proiektu honek norbaiti atentzioa deitu badio edo ikus entzunezkoak gustatzen baldin bazaizkio, berarekin harremanetan jartzeko eskatu du: femalesstv@gmail.com helbidearen bitartez edo bestela serieak Instagramen duen kontuaren bidez: [@femalesTV](https://www.instagram.com/femalesTV).

'50 Txiki Elkarrekin' dokumentala sarera igo du Mauxitxa txarangak

Mauxitxa Txarangak 50 urte bete zituen domekan, Santa Ana egunez, 1970. urteko uztailaren 26an jo zutelako estreinakoz, Sorraluzeko jaietan. Eta urtemuga hori, txarangaren gaineko dokumentala Interneten eskegitzeko baliatu dute. Mikel Sastre elgoibartarrak zuzendu du *50 Txiki Elkarrekin* izeneko dokumentala. "Ezinezkoa zaigu ez hunkitzea dokumentaleko irudi, elkarrizketa eta adierazpenekin, are gehiago aurtengo Txiki Eguna bizitzea ezinezkoa izango zai-gulako", adierazi dute Mauxitxa txarangako kideek. Youtuben duten kanalera igo dute dokumentala.

Moziok ez ditu "asebete" Gaurgeroa-Duintasuna pentsiodunen taldekoak

Joan zen eguaztenean moziok aurkeztu zuten Udalean Gaurgeroa-Duintasuna elkartekoek, EHBildu eta Podemos alderdien bidez, baina moziok ez zuen aurrera egin. Nolanahi ere, haren ordeztu, EAJk aurkeztutako kontramozioa onartu zuen udalbatzaren osoko bilkurak, EAJren eta PSE-EEren babesarekin. Eta moziok horren inguruko lehen balorazioa egin du orain Gaurgeroa-Duintasunak. "Moziok horrek ez ditu astebetetzen, ezta urrutitik ere, gure aldarrikapenak", zabaldu dute prentsa ohar bidez. Gaurgeroa-Duintasunetik esan dute "herritarrei ezer esaten ez dieten Osakidetzaren ehunka datu ematera mugatu" zirela udal ordezkariak: "Ez gara zenbakiak, pertsonak gara. Eskubideak eta beharrak dituzten herritarrik". Nabarmendu dute osasun-arreta guztion beharra eta oinarrizko eskubidea dela eta eremu horretan egiten diren "murrizketak" pertsonen oinarrizko eskubideen aurkako arazo larria direla. Horregatik, azalpenak eskatu dizkiete udal gobernuko ordezkariari. "Uste dugu Elgoibarko herritarrei azalpen bat eman behar dietela.



Elgoibar BHI
www.elgoibarbhi.eus

Elgoibar BHI
Arregitorre 2
943 899 316
013431aa@hezkontza.net



**Hurrengoan denok elkarrekin ospatuko dugu.
Gora sanbartolomeak!**



**IRIONDO
KIROLAK**

MENDI eta KALERAKO KIROL MODA
ELGOIBAR

Eskerrik asko, bezero!

Abuztuko ordutegia:
09:00-13:00



Gabi
jatetxea

Hurrengoan elkarrekin ospatuko ditugu.

Abuztuan zuekin izango gara.

Abuztuaren 10etik 16ra
itxita izango dugu.

● 943 741 230 ●

MERAKI ILEA PAINDEGIA

ERROSARIO KALEA, 20 - ELGOIBAR,

Abuztuan zabalik!

Asteartetik ostiralera,
09:00etatik 13:00etara/15:00etatik 19:00etara
Larunbatetan, 09:00etatik 14:00etara.

943 246 225

Mila esker, bezero, zuen konfiantzagatik.



▶ Zapi berdeari maskara batu zaion urtea

Koronabirusaren pandemiak ilundutako uda da aurten goa, jairik gabeko uda. COVID-19a izan ez balitz, jai ondoko biharamunarekin leudeke gaur mendaroar asko eta asko [astelehena da gaur], Santa Ana egunarekin, jaietako egunik handienarekin, ixtekoak zituztelako aurten jaiak. Baina aurten ez da jairik izan, ez behintzat ofizialki. Azkeneko asteotan izaten ari diren agerraldi berriak ikusita, ekitaldirik ez antolatzea erabaki zuen Mendaroko Udalak jende pilaketak eragozteko, eta era berean, arduraz jokatzeko deia ere egin zien herritarrei. Eta hein handi batean, bete da. Zapi berdeari maskara batu zaio aurten, eta hala ikusi ditugu Santa Ana eguna ahaztu nahi izan ez duten herritarrak. Leiho eta balkoi banaka batzuetan ere ikusi ditugu jaietako zapi berdeak, eta etxebarruren batean balkoitik ere egin zuten topa domekan bizilagunek, txakolinarekin. Argazkiak beti dira lagun ona memoria egiteko, baina aurtengo jaietako argazkiak gordetzeakoak izango dira ezbairik gabe. Mendarorarrek eurek bidalitako argazki batzuk ekarri ditugu hona, ofizialki egin ez diren jaien adierazgarri.



**SOFTLANekin, zuk erabakitzen duzu,
zuk daukazu zure enpresaren kontrola...**

Egoera zailtan ere zure ondoan!!!

Albitxuri Industrialdea, 3i
Tel.: 943 748 105
info@softlan.biz
<https://eu.softlan.eus/>

▶ EDUARDO ARRILLAGA

ARGAZKILARIA



Sanbartolome jairik egongo ez den arren, sokamuturraren eta Txiki Egunaren izpiritua bizirik mantenduko ditu Eduardo Arrillaga (Elgoibar, 1966) argazkilariak jai egunak izan beharko luketen horietan. *Photo kalean* argazki erakusketa estreinatuko du abuztuaren 23an, eta irailaren 7ra arte egongo da ikusgai erakusketaren izenak dioen moduan, kalean. 2001ean argitaratu zuen sokamuturrari buruzko liburitik ateratako argazkiekin eta argitalpen haren ondorengo urteetan

egindako beste argazki batzuekin osatu du erakusketa, eta sokamuturraren ibilbidean zehar jarriko ditu ikusgai, gehienak argazkia bera ateratako leku berean. Horrez gain, hemendik bizpahiru urtera estreinatuko duen Txiki Egunari buruzko bildumako aurrerapen txiki bat ere erakutsiko du zortzi argazkitan, Errosario kalean. Argazki guztiak 2 x 1,33 metroko neurrian inprimatu ditu, eta seguru ez direla oharkabean pasatuko.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Zer ikusiko dugu Photo Kalean erakusketan?

Sokamuturreko eta Txiki Eguneko argazkiak jarriko ditut. 30 argazki izango dira guztiara, 22 sokamuturrekoak eta 8 Txiki Egunekoak. Txiki Eguneko lana oraindik ez daukat bukatuta, baina etorriko den lan horren aurrerapen bat jarriko dut ikusgai Errosario kalean. Kalearen zabalera osoa hartuko dute argazkiek, eta balkoi batetik bestera zintzilikatuko ditugu. Gainerako argazkiak sokamuturrari buruzkoak izango dira. 2001ean argitaratu nuen *Sokamuturra* argazki bildumatik ateratakoak dira erdiak, eta beste erdiak berriak izango dira. Liburua argitaratu ostean beste pare bat urtez jardun nuen argazkiak ateratzen, eta bi urte horietako zenbait argazki ere jarriko ditut ikusgai, baina gehienak orain dela 25 bat urte ateratakoak dira. Hala ere, ez dute egunerokotasunik galdu, argazkiak bizirik daude gaur egun ere, eta horrek erakusten du argazkiak onak zirela. Argazki guztiak tamaina erraldoian inprimatu ditugu, 2 x 1,33 metroan. Izugarria! Sekula ez ditut nire argazkiak horren handi ikusi, eta sekulakoa iruditu zait.

◆ Nola bururatu zitzaizun kalean eta tamaina erraldoian jartzeari argazkiak?

Konfinamenduan izan zen. Urteak daramatzat herri desberdinetako festa zoroetan argazkiak ateratzen; festa berezietan, izaera handiko egunak direnetan: Tomatina, Txiki Eguna, Ardoaren



Txiki Eguneko argazkiak ateratzea izan da bizitzan egin dudan lanik zailena

Festa... Konturatu nintzen festa horiek guztiak bertan behera lagatzen ari zirela koronabirusagatik, sanferminik ez zela egongo iragarri zuten, eta sanbartolomeekin ere gauza bera gertatu zitekeela pentsatu nuen. Sokamuturra eta Txiki Eguna ez zirela ospatuko nahiko argi ikusi nuen, eta hutsune hori betetzeko zerbait egitea bururatu zitzaidan. Jesus Mari Sarasua, Aitor Zabala, Felix Astigarraga eta nire emaztea [Esmeralda Zapparoli] bildu nituen talde batean nire asmoaren berri emateko, eta denek esan zidaten sekulako ideia zela. Nire lehenengo asmoa sokamuturreko argazkiak erakustea izan zen, Txiki Eguneko lana oraindik amaitu gabe daukadalako, baina aholkulari taldekoek esan zidaten polita izan zitekeela lan horren aurrerapen moduko bat egitea. Zortzi argazki bakarrik erakutsiko ditut. Errosario kalean ateratako argazkiak izango dira, eta han bertan kokatuko ditugu argazki horiek, Txiki Eguneko puntu gorena kale horretan bizitzen delako. Erakusketa honen helburua jaien izpiritua bizirik mantentzea izan da. Nola-bait esateko, herritarrei egoera berri honek eragindako estresa arindu nahi nien. Badakit nire erakusketak ez dituela benetako jaiak ordezkatzeko, baina jaiak gogoan izateko balioko du. Argi laga nahi dut elkarlanaren ondorioa izan dela lan hau. Argazkiak nireak dira, baina erakusketaren antolakuntzan talde guztiak hartu du parte, Udalak ere bai, jakina.



◆ Non eta nola jarriko dituzue argazkiak?

Getxon egiten duten moduan kalean egitea bururatu zitzaidan. 2010ean nire argazki batzuk jarri zituzten Getxon eta izugarri gustatu zitzaidan. Ideia hartan oinarritu dugu Elgoibarko erakusketa. Santa Ana kaletik Maalara bitartean sokamuturreko argazkiak egongo dira, eta gehienak, argazkia bera ateratako leku berean jarriko ditugu. Sokamuturreko ibilbidea ixteko erabiltzen diren burniak erabiliko ditugu argazkiak kokatzeko. Felix Astigarragaren laguntza izan dut horretarako. Zaragozako Utebo herritik ekarri zuen sokamuturreko ibilbidea ixteko ideia Felixek. Han ere sekulako sokamuturra egiten dute, eta hango itxituretan oinarrituta, Elgoibarren ere segurtasuna areagotzeko neurriak hartu zituzten. Burni horiek erabiliko ditugu nire argazkiak kokatzeko. Lan asko egin ditut nire ibilbidean zehar, baina hau oso berezia izango da. Argazkiak tamaina handi horretan ikustea izugarria izango da.

◆ Txiki Egunari buruzko erakusketa prestatzen ere ari zara. Noizko ikusiko dugu bilduma hori?

13 urte daramatzat Txiki Eguneako argazkiak ateratzen, eta beste bi edo hiru urtetan bukatuko dudala uste dut. Nik sekula ez dut nahi izan Txiki Eguneako argazkiak ateratzea. Niretzat Txiki Eguna festarako eguna izan da betidanik. Lagunekin irten, ardoz zikindu eta festa bizitzea gustatzen zait, eta banekien kamerarekin irtetzen nintzen egunean hori guztia galdu egingo nuela. Eta sokamuturrarekin ere gauza bera gertatu zitzaidan. Sokamuturra eta Txiki Eguna bizi egiten ditut, izugarri gustatzen zait bi ekimen horiek barrutik bizitzea eta gozatu nahi nuen, ez argazkiak ateratzen ibiltzea. Baina konturatu nintzen gauza pila bat ikusten nituela, eta sentitu nuen sokamuturrean eta Txiki Egunean gertatzen ziren gauzak jendeari erakutsi behar nizkiola. Merezi zuela jendeak han sentitzen zena ikustea. Sokamuturrarekin hasi nintzen lehenengo: zezena xaxatzeari utzi, eta argazki kamerarekin irtetzen

hasi nintzen zezenera. Ordurako banekien zezenaren aurrean ibiltzen, eta horrek asko lagundu zidan argazkiak ateratzen. Hamar urtez jardun nuen sokamuturrean argazkiak ateratzen, eta 2001ean argitaratu nuen liburua. Hala ere, oraindik gauza batzuk geratzen zitzaizkidan ateratzeko eta beste bi urtez jardun nintzen lanean. Ordurako prestatuta nengoen Txiki Eguneako lanari ekiteko, baina beste urte batzuetan jarraitu nuen festaz gozatzen, eta 2007an hasi nintzen lanean. Gauzak nik nahi bezala iriteten badira, bizpahiru urte barru bukatuko dut.

◆ Sokamuturreko ala Txiki Eguneako argazkiak ateratzea da zailagoa?

Txiki Eguneako argazkiak ateratzea izan da bizitzan egin dudan lanik zailena. Jendeak pentsa dezake zezenari argazkiak ateratzea zailagoa izan daitekeela, baina ez da horrela. Zezenan ibiltzen dakienak, badaki zezenak nola jokutzen duen, eta nik banekien zer egin behar nuen argazkiak lasai ateratzeko: Batetik, zezenaren aurrean kokatu behar nuen, argazkiak atzetik ateraz gero, jendea bakarrik aterako nuelako. Bestetik, gertu egon behar nuen, eta horretarako modu bakarra zezena ez xaxatzea da. Korrikalariak xaxatzen dute zezena, orduan ni geldi-geldi egonda banekien ez zidala ezer egingo. Txiki Eguneako lana askoz zailagoa da, zezenak argazkilaria errespetatzen duelako, baina jendeak ez. Nik ez ditut argazkiak balkoietatik ateratzen, jende artean murgiltzen naiz, eta batzuetan tente egotea ere kosta egiten zait. Baina Txiki Egunaren esentzia transmititzeko ezinbestekoa da jendeak sentitzen duena sentitzea.

◆ Izan al duzu istripurik argazkiak ateratzen?

Bai, sokamuturrean hartu izan ditut kolpeak. Despisteren bat izatea erraza da une horietan, eta hain gertu ibilita normala da tarteka kolperen bat hartzea. Baina zorionez ez dut ezer larririk eduki. Sokamuturraren ibilbide guztia egiten nuen, hasieratik bukaerara, baina tarteka leku konkreturen batean kokatzen nintzen geldi, zezena etorri arte, zain. Ez nituen korrikaldi guztiak egiten, eta konturatu nintzen gauzak galtzen nituela itxarote horretan. Demagun Kultur Etxe aurrean egoten nintzela zain, eta esaten zidan batek *ikusiko duzu plazan zer gertatu den?* edo *Errosario kalekoa harapatu duzu?* Sei urteren ondoren, entrenatzen hasi nintzen, zezenari jarraitu ahal izateko. Atletismoan ibilitakoa naiz, eta sprintean ibili ahal izateko entrenamenduak egiten hasi nintzen. Sokamuturrari eskaini nizkion azken lau urteetan fisikoki topera nengoen, eta korrikaldi guztiak egin nituen zezenaren aurrean. Hasierako urteetan argazki kamerak traba egiten zidan, baina gero ikasi egin nuen kamerarekin ere korrika egiten. Azken urteetan bilduma osatzeko falta zitzaizkidan detaile txiki pila bat erretiratzea lortu nuen. Txiki Egunean ere balkoietatik atera daiteke jende

multzoa, masa, baina hori argazki bat da, ez da lanaren muina. Horregatik sartzen naiz txaranga barrura. Jendeak ez dauka intentzio txarrik, baina Txiki Eguna horixe da, eta horrek asko konplikatzen

“Erakusketak ez ditu benetako jaiak ordezkatzeko, baina jaiak gogoan izateko balioko du”

du nire lana. Argazki asko mugituta ateratzen zaizkit, desenfokaturata, edo lausotuta... Horregatik hurrengo urteetan saiatzen naiz argazki horiek errepikatzen, baina oso-oso zaila da.

◆ Zenbat argazki kamera hondatu zaizkizu urte hauetan?

Txiki Egunean uste dut bakarra hondatu zaidala. Zezenez, gehiago; bi edo hiru bai. Zezenak kolpea eman eta lurrera erortzean puskatu izan zaizkit.

Txiki Egunean balkoi batetik ura bota zuten batek den-dena niri bota zidan, baina zorionez, ez zen ura karretera iritsi. Ibaian sartu nintzen beste batean Erreka Jaitsierako argazkiak ateratzera eta zulo batean sartu nintzen. Blai geratu nintzen goitik behera, eta kamera ere busti zitzaidan erabat. Errekatik irten eta berehala joan nintzen etxera argazkiak errebelatzera, eta ordurako pelikula hondatzen hasia zegoen. Karretereko izkin guztiak puskatu ziren, baina erdiko zatia ondo geratu zen. Une hartan nire buruari promesa bat egin nion: argazki haiek berreskuratzen banituen sekula inoiz nire bizitzan egingo ez nukeen zerbaite egingo nuela: San Pedrorra bizikletaz igoko nintzela pentsatu nuen. Sekula ez nintzen bizikletan ibiltzen eta zorakeria iruditzen zitzaidan San Pedrorraino bizikletaz igotzea, baina argazkiak salbatu zirenez, promesa bete behar izan nuen. Inork ikusten ez ninduen egun batean bizikleta hartu, eta joan nintzen! Erreberatuta iritsi nintzen, baina bete nuen nire promesa.

◆ Sokamuturrari hamar urte eskaini zenizkion eta Txiki Egunari momentuz 13. Milaka argazki izango dituzu dagoeneko. Nola egiten duzu gero erakusketarako argazkien aukeraketa?

Erakusketa potente bat egiteko 80-100 argazki behar izaten dira. Elgoibarko Kultur Etxerako horren erdiarekin nahikoa izango nuke, aretoa txikia delako, baina lan txukun batek esaten ditu 100 argazki inguru. Txiki Eguneok dagoeneko 160 ditut aukeratuta, baina oraindik une batzuk falta zaizkit eta ez dakit lortuko dudan nahi dudan guztia ateratzea. Baina jendeak hori ikusi egin behar du, sekulakoa izango da Txiki Egunari buruzko bilduma, Txiki Eguna bera ere sekulakoa delako. Txiki Egunera etortzen diren kanpotar guztiak txundituta geratzen dira festa honekin.

◆ Festa zoroak erretratatzeko ari zarela esan duzu. Zeintzuk? Eta argazki horiekin zer egiteko asmoa duzu?

Txiki Egunarekin hasi nintzen, eta poliki-poliki beste herri batzuetako jai zoro horietara joaten hasi nintzen. Buñolen (Valentzia) egiten den Tomatina izan zen aukeratuetakoa bat. Buñol Elgoibarraren antzerako herria da. Santa Ana kaletik Maala arteko eremu batean kamioi bat irteten da jendeari tomatea botatzen. 26.000 pertsona biltzen dira, eta sartzeko tiketa behar da. Urte batean berandu iritsi nintzen eta ezin izan nintzen eremura sartu, baina bertako bizilagunekin egon nintzen hizketan, eta pista pila bat eman zizkidaten argazkiak ateratzeko. Haroko ardoaren jaiaren



ateratzen dut, Alacanteko Ibi herriko irinaren festa, Gran Canarian egiten duten putzuko jaiak... Jai zoro asko daude, batzuk ezagunak eta beste asko ezezagunak, baina bakoitzak bere xarma dauka eta horiek jaso nahi nituzke argazki bilduma dotore batean. Hamar bat festa dauzkat begiz jota, eta bakoitzeko onenarekin liburu on bat egin nahi nuke. Es-

tresala albo batera utzi eta erokeriak egiteko aukera ematen duten festa horiek izugarri gustatzen zaizkit.

◆ Kamera analogikoarekin hasi zinen, eta orain digitala erabiltzen duzu. Zein duzu nahiago?

Analogikoak kalitate gehiago ematen du. Hasierako urteetan analogikoa erabiltzen nuen eta ez dauka digitalarekin zerikusirik. Digitalean askoz argazki gehiago ateratzen dira, baina ez dira hain onak. Analogikoan askoz gehiago pentsatzen genuen klik egin aurretik. Gaur egun, baina, ez dauka zentzurik analogikoan lan egiteak. Askoz garestiagoa da, eta, gainera, argazkilaritzaren mundua digitalera bideratuta dago.

◆ Argazkilaria zara afizioz, baina tabernari ofizioz. Zaila al da argazkilaritza bizimodua egitea?

Nik lan egiten dudan moduan ezinezkoa da argazkilaritza bizitzea. Nik gai oso zehatzak aukeratzen ditut eta urte pila bat eskaintzen dizkiot gai bakoitzari. Hori ordaintzerik ez dago. Tarteka lehiaketaren bat irabazten dut edo argazkiren bat saltzen dut, eta lortzen dudana diru apurra berriz ere argazkigintzan inbertitzen dut. Argazkilaritzan lan egiteko aukera bakarra gaur egun ezkontzak eta jaunartzeak erretratatzeko da, baina nik ez dut hori nahi. Sasoi batean ibili nintzen horretan Bartzelonan nire emaztearekin, eta gerora hemen ere aritu ginen, baina ez zitzaigun errentagarria irteten. Ezkontzetako lana eta tabernakoa ezin genituen uztartu, eta erabaki genuen gehiago ez egitea. Gainera lan monotonoa iruditzen zitzaidan, argazki guztiak berdinak ziren, nahiz eta protagonistak aldatu, eta horrek azkenean sormenari eragiten dio. Niretzako afizioa baino gehiago pasioa da argazkilaritza, eta sormena lantzea gustatzen zait. Bizitza guztia eskaintzen diot honi. Etxean gela bat daukat argazkientzako bakarrik, eta nire artxiboa handitzen doa etengabe.

◆ Aurrera begira zein proiektu dituzu eskuartean?

Txiki Eguneko bilduma eta gainontzeko festak, batetik, eta landa munduko argazkien erreportajea, bestetik. Landa eremuko ohiturak jasotzen dihardut azken 25 urteotan eta hori ere oraindik bukatu gabe daukat. Konfinamenduan Ameriketako Estatu Batuetako lehiaketa batera aurkeztu nuen bilduma horretako argazki bat eta saritu egin ninduten. Tarteka sariak jasotzeak ilusio handia egiten dit.

► Gremioen gida

ARROZTEGIAK

BICNA S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.bicna.eus
info@bicna.eus



Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-0/ 1-P
943 740 547



iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

IMAR
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheka
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



Aroztegia Carpintería
ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
tailler@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheka B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ONGI Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheka
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

Errosario kalea, 15 beheka - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

- Igeltseritza
- Pintura

ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20800 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 beheka
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea

- Aroztegiak
- Erreformak

asador

ibai-ondo

Giza Eskubideen parkea, 1,

943 256 028



*Mila esker bezero gudan jarritako konfiantzagatik.
Abuztu osoan zehar zuekin izango gara.*

LANBROA

San Miguel

Pedro Muguruza, 5

943 743 811 / 943 740 806



MM

Meka

Lanbide Eskola

*Egoera berezi honetan,
udara on bat pasatzea eta
indar berrituta bueltatzea opa dizue
Meka Lanbide Eskolak.*



Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Aizkorri kaleko igogailu ingurua oso zikin
Aegoten da: "Aizkorri kaleko igogailua dagoen inguruan jende asko ibiltzen da, eta oso-oso zikin egoten da. Lagata dago gune hori, eta ez dute sekula garbitzen. Iruditzen zaigu sarriago garbitu behar dela".



Kalamuarako bide dena hondatuta dago: "Idortorbetik Kalamuarako bidean pinuak ateratzen ari dira, eta kamioien joan-etorriek bidea erabat hondatu dute. Lanen ondorioz bidea hondatzea ulertzen dugu, baina iruditzen zaigu behin lanak bukatuta apur bat txukuntzeko ardua hartu beharko luketela norbaitek".



Aita Agirre plazan huts egin du hondakinak
Akudeatzeko lurrazpiko sistemak: "Lurrazpiko edukiontziak jarri zituzten Aita Agirre plazan herriko beste hainbat gunetan bezala, baina berehala hasi ziren arazoak. Badirudi lurrazpiko sistema hondatuta dagoela, eta lurrazpiko edukiontzien ondoan berriz ere ohiko edukiontziak jarri dituzte. Baina hala ere, ez da arazoa konpondu. Zaborra biltzeko kamioiak arazoak izaten ditu edukiontzietara iristeko, eta ezin izaten dituzte edukiontziak kamioira hustu. Langileak eskuz ibiltzen dira zaborra biltzen, eta sarri, lurrean dagoena bakarrik jasotzen dute. Hondakin sistema honi kiratsa dario".



Pedro Migel Urruzuno kalean espaloi gainean
aparkatzen du jendeak: "Pedro Migel Urruzuno kaleko espaloia oso baxua da, errepidearen mailan dago eta jende askok espaloian bertan uzten du autoa. Hormaren ondondoraino sartzen dute ibilgailua, eta ez dute oinezkoentzako lekuri lagatzen. Ume-aulkiekin dirua ateratzera joan nahi nuen Gipuzkoako banketxeko kutxazainera eta ezin izan nintzen iritsi. Errespetu piskat eskatu nahi diet gidariei".

Zuhurtziak irabazi du

Elgoibarren ere ez da sanbartolome jairik izango aurten. Koronabirusaren pandemia betean, jendea pilotzea eragotzi nahi du Udalak, birusa gehiago zabal ez dadin, eta ulertu dute herriko eragileek. Ez dute pena ezkutatu, hala ere. Adinez nagusiago direnek 1983ra begira jarri gaituzte, sanbartolomerik izango ez dela jakin dutenean. Urte hartan, sekulako euriteak izan ziren San Bartolome egunez eta Txiki Egunez, eta ondorioz, Deba ibaiak gainezka egin zuen abuztuaren 26an. Ur handiek kalte handiak eragin zituzten herrian, eta ezinbestean, jaiak bertan behera laga behar izan zituzten udal agintariek. Urrian ospatu zuten elgoibartarrek Gazteen Eguna.

- AINARA ARGOITIA -

LANDER AZPIAZU (Mauxitxa txaranga).....

“Jairik ez egitea ondo hartu dugu. Egoera honetan ez dauka zentzurik jendearen osasuna arriskuan jartzetak. Badakigu jaietan jende dezente mugitzen dugula eta batzen dugula ingurura eta arduragabekeria handia litzateke gure aldetik arrisku hori hartzea, gu geu eta gure ingurukoak arriskuan jartzea. Zentzuzko erabakia iruditu zaigu sanbartolomeak bertan behera lagatzea, baina ez dugu ukatuko pena handia eman digula. Pena, guretzat sanbartolomeak urteko egunik berezienak direlako, bai izaten diren ekitaldiengatik eta baita gure artean sortzen den aparteko giro horrengatik ere. Baina, hala ere, egia da pandemia hasi zenetik nahikoa onartuta genuela aurten jaiak ez zirela ohikoak izango. Oso barneratuta geneukan hori, gerta zitekeela gertatu dena. Ez gaitu ezustean harrapatu. Guretzat aurtengoa urte berezia zen, Txarangaren 50. urtemugaren urtea delako, eta pena da, koronabirusagatik ekitaldi asko ezin izan ditugulako egin. Ilundu digu, bai, urteurrena, koronabirusak. Martxoan, alerta egoera ezarri zuten asteburu berean, esaterako, sagardotegira irteera egitekoak ginen txarangatik pasatako lagunak eta gaur egungo ki-deok, baina bertan behera laga behar izan genuen. Bertan behera laga genuen, era berean, apirilean Elgoibarko Udal Musika Bandarekin batera ematekoa genuen kontzertua, bai eta maiatzean, Morkaikoren Egunean, egitekoa genuen txarangen topaketa eta ekainerako iragarri genuen Erraldioen alardea ere. Ekitaldirik bereziak eta urtemugaren harira antolatu genuen azkena domekarako geneukan aurreikusita, Santa Ana egunerako. Egun horretan, uztailaren 26an, bete ziren 50 urte Mauxitxa txaranga lehenengoz irten zela kalera. Soraluzera joan zen orduan txaranga, hango jaietara, eta hara joatekoak ginen geu ere aurten, baina zoritxarrez ezin izan ginen joan. Egoera honetan ez da tokatzen. Ezinbestean bertan behera laga behar izan ditugun ekitaldi polit horietako batzuk behintzat egin ahal izango ditugu egoerak hobera egiten duenean. Momentuz ez daukagu datarik zehaztuta, inork ez dakielako hau zenbat luzatuko den, ez eta zertarako aukera izango dugun ere gero, neguan, baina nik uste dut denon buruan dagoela ekitaldi horietako batzuei eustea”.



Lander Azpiazu, ezkerretik hasita lehenengoa.

GERMAN TELLERIA (Kalamua Elkartea).....

“Pena da sanbartolomerik ez egotea, baina guztiz ulergarria da. Ibili gara geu ere Udalarekin hartu-emanetan, hasieran nahi zelako ekintza batzuei eustea. Garbi zuten ez zela jairik egingo ohiko formatoan, baina gauzaren batzuk antolatzeke nahia egon da hasieran, segurtasun neurriak hartuta. Guk pentsatu genuen zerbait mantentzekotan gazta lehiaketa eta herri kirol saioa mantentzea, kontu batzuk egoera berrira egokituta, baina azkenean jakinarazi digute ezingo dela egin. Bestela, gazta lehiaketa udal-letzeko pleno-aretoan egitea proposatzekoak ginen gu, eta herri-



kirol saioa ikastolako frontoian egitea, plazan beharrean. Era horretan aforoa zaindu ahal izango genuela pentsatzen genuen. Baina ez dira egingo azkenean. Ikusten genuen halako zerbait etor zitekeela. Inguruko herrietan ere jaiak bertan behera lagatzen zedela bagenekien eta ez gaitu harritu erabakiak. Ulergarria da. Badakigu denok gaudela jai gosez, baina zentzuz jokatzeko dagokigu. Iruditzen zait gazteak egongo direla bereziki parrandarako gogoz, baina haiei ere arduraz jokatzeko dagokie, kalteberagoak direnak arriskuan ez jartzeko. Agerraldi asko izan dira azkeneko asteetan eta denok egin behar dugu ahalegina, hau gelditzeko”.

SINUÖSE

“Hasieran ez genuen guztiz ondo hartu sanbartolomeetan joko ez genuela entzutea, interpretatu genuelako kultur ekintzak bakarrik laga behar zituztela bertan behera, baina ikusi dugu dena jausi dela eta onartu dugu, etsi-etsian. Jai-egunetan jendea pilatzea eragotzi nahi izan dute udal arduradunek, eta ulertzen dugu hori, inoiz baino gehiago arduraz jokatzeko dagokigulako denoi, eta denok egin beharra dugulako norabide bidean, atzera egingo ez badugu. Guk badakigu Bikustik ikustera ez zela jende askorik etorriko abuztuaren 28an kanpotik Elgoibarrera, baina beharbada sor zitekeen girotxo bat, abuztuko gauak beti direlako bereziak musika zuzenean entzuteko. Hala ere, Bikustik-ek jo edo ez, giro hori berdin-berdin sortuko da, eguraldiak laguntzen badu behintzat. Uda da, eta denoi gustatzen zaigu abuztuko gauetan trago pare bat hartzea edo kalean bokata bat afaltzea. Hala ere, ulertu dugu Udalaren erabakia, eta onartu dugu, agindu digutelako orain bertan behera utzi dizkiguten kontzertuak ez direla betiko jausi. Hau da, egoerak hobera egindakoan, irailan-edo, eman ahal izango ditugula. Ilusio handiarekin geunden jaietan herrian jotzeko, eta tira, jaietan ez bada ere, gero jo ahal izango dugu Elgoibarren.

Baina hori dena esanda, gauza bat esan nahiko genuke. Iruditzen zaigu kultura oso garesti ari dela ordaintzen hau dena. Sekto guztietan izango zituzten kalteak, baina kulturaren ekosistemari min handia egin dio kontu honek eta kulturatik ere jende asko bizi da hemen: soinu eta argiztapen teknikariak, programatzaileak, musikariak... Gu lau lagun gara Sinuösen, eta laurak batuta, hogeitabat kontzertu galduko genituen, pandemia hasi zenetik. Askok sufritu duen sektorea da gurea. Pandemia hasi zenean, bertan behera laga zituzten kultur ekintza guztiak, eta denbora luzean ez da ezer egin, beraz nekez lotu daiteke koronabirusaren agerraldirik kultur ekintzekin. Kontzertuetan ez da inor kutsatu eta hori laga nahi dugu argi. Kontzertu banaka batzuk eta bestelako kultur ekintza gutxi batzuk antolatzeke bidea eman denean ere, segurtasun neurri zorrotzenak beteta egin dira. Kontzertuetan, aukietan esertzen da publikoa eta aukitik aukira, zorrotz zaintzen dira segurtasun-tarteak. Arriskurik gabeko lekurik ez dago, bistan da, baina nekez egongo da jendea kultur ekintza batean baino seguruago. Birusaz kutsatzeko arrisku handiagoa daukagu kalean bertan ere. Iruditzen zaigu ahalegin bat egin behar dugula denok, bai administrazio publikoek eta baita kulturagileok ere, egoera berrira egokitzeke. Normaltasun berri honetan errazena ezer ez antolatzea da, baina ausardiaz jokatzeko dagokigu, ezin baita koronabirusaren beldurrez dena bertan behera laga, alternatibak aztertu gabe. Sinuösetik garbi ikusten dugu, esaterako, Kultur Etxeko Sotoan ezin dugula kontzerturik antolatu, baina saiatu gara formula berriak bilatzen, eta alternatiba bat ere eman genuen: Sinuöse Alarma Sessions. Zuzeneko bideoak grabatzeko eskatu genien artista batzuei, eta bideo horiek sarean zabaltu genituen gero [Iñigo Cabezafuego, Joseba Irazoki, Hatxe eta Joseba B.Lenoir eta Mice-ren bideoak zabaltu zituzten]. Guk garbi geneukan kontzertuak ezin genituela antolatu, baina artistei lana emateko formula topatu genuen. Bi helburu ditu Sinuösek: elgoibartarrei kultur proposamen bat eskaintzea, batez ere musika proposamena dena, eta artistei lanerako bidea ematea. Izan ere, ez dugu ahaztu behar kultura ez dela aisia kontu hutsa; kultura aktibitate ekonomiko bat ere bada. Jende batek kulturatik bizi nahi du, baina herri honi kultura ematen ari zaion jende horrek ahaleginak eta bi egin behar ditu hortik bizi ahal izateko. Aktibo mantendu behar dugu sare hori, aberastasun handia sortzen ari direlako.

Bukatzeko, elgoibartarrei eskatuko genieke arduraz jokatzeko, denon ardura delako birusa gehiago ez zabaltzea”.



Ander Mujika, Iban Urizar, Patxi Zabaleta eta Jon Gurrutxaga Sinuöse elkartekoak.

MALAKO JAI BATZORDEA.....

“Covid-19ak eragindako larrialdi egoerak behartuta, Malako Jai Batzordeak aurten Gune Askean egitaraurik ez antolatzea erabaki du.

Egoeraren larritasunaz oharturik, ez dugu babes neurriak behar bezela beteko dituen egitaraua osatzeko biderik ikusi. Hortaz, aurtengoz jaiak bertan behera uztea iruditu zaigu aukerarik zentzuzkoena.

Pandemia egoerak garai zailak ekarri ditu berekin; izan ere, osasun krisiaren ondorioz, krisi ekonomiko eta sozial larriaren aurrean aurkitzen gara. Horretaz guztiaz jabeturik, argi ikusten dugu orain datozkigun garaietan arduraz jokatu behar dela.

Beraz, aurrerantzean ere, elkartasun eta konpromisotik ekingo diogu gure lanari.

Era berean, salatzen dugu egoera honek guztiak kontrolaren areagotzea eta norbanako zein kolektiboen askatasun eta eskubide murrizketak ekarri dituela berarekin. Honen aurrean, argi daukagu orain arte bezela, beste jai eredu herrikoi, euskaldun, parte hartzaile eta aske baten alde lanean jarraituko dugula.

Datorren urtean elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen gara. Laster arte”.



AITOR ASENJO (Haritz Euskal Dantzari Taldea).....

“Pena hartu dugu sanbartolomerik izango ez dela jakitean, baina ulertzen dugu Udalaren erabakia. Haritz Euskal Dantzari Taldekoontzat bereziak dira sanbartolomeak. Dantza taldea bera ere San Bartolome egunez soka-dantza egiteko sortu zuten, eta guretzat egun bereziak dira, ezbairik gabe. Soka-dantzaz gain, dantza solte txapelketa ere antolatzen dugu jaietan eta erraldoi eta buruhandien kalejira antolatzea ere gure arduran dago. Era berean, Baserritarren Egunean, aurrerakua ere dantzatu ohi diegu baserritarrei. Aurten, baina, ez da halako ezer izango. Nazioarteko

Folklore Jaialdia ere zapuztu zigun koronabirusak uztailean, eta esan dezakegu guretzat berezianak diren egunak galduko ditugula aurten. Pena da, baina ez dago besterik. Egia esan, nik neuk aurreikusten nuen halako zerbait. Garbi neukan plazara dantzara irtetekotan ere ez zela betiko formatuan izango. Beste herri batzuetan ikusi ditugu soka-dantzan, ikuslerik gabe eta dantzariak maskarak jantzita zituztela, eta halako zerbait irudikatzen nuen nik San Bartolome egunerako. Baina duela hamar bat egun koronabirus kasuak agertzen hasi ziren gure buelta honetan, eta orain, hori ere ez da bideragarri. Ni neu dantza egindakoa naiz San Bartolome Egunez, eta badakit zelako berezia den egun horretan horrenbeste jenderen aurrean dantza egitea plaza nagusian. Zorionez, ez dago gazterik aurten estreinakoz dantza egin behar zuenik, bestela haiek bai hartuko zuketela disgustu handia. Datorren urtean gehituko dira dantzari berriak soka dantzako taldera eta espero dezagun ordurako behintzat gainditu izana hau dena. Lerro hauen bidez, animoak bidali nahiko genizkieke elgoibartarrei, eta arduraz jokatzeke eskatu. 23 urte dauzkat nik, eta jai zalea naiz, baina aurten ez da tokatzen. Guri gazteoi ez digu beharbada horrenbesteko minik egingo koronabirusak, harrapatuta ere, baina gure inguruan baditugu kalteberagoak direnak, amamak eta aitxixak-eta, eta haiengatik, zaintzea dagokigu denoi. Etorriko dira urte hobeak sanbartolomeak ospatzeko”.



Aitor Asenjo, iazko sanbartolomeetan.



Mila esker
zuen konfiantzagatik!

DESKONTU HANDIAKI!

- Haurren izaretan
- Sehaska-koltxoietan
- Haurrentzako iragarki laburretan...



Etorri eta ikusi umeentzako produktueta ditugun deskontuak.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

HAIR'S

ileapaindegia

San Bartolome, 6 behe

943 531 279



ABUZTUAN,
ZABALIK IZANGO
DUGU, GOIZEZ

9:00ETATIK 14:00ETARA
(ASTELEHENETAN ITXITA)

Mila esker, bezero!

Aurten kale
ZAINDU ZAITEZTE
nava@euskalnet.net

NAVA

INPRIMATEGIA

Zaindu. Babestu. Elkarrekin egingo dugu.



elgoibar

ehbildu

Nolakoa aurreikusten duzu aurtengo abuztua?

Urte guztian abuztuko oporren zain bizi dira herritar asko, baina aurtengo abuztua ez da ohi bezalakoa izango. Ez herritarrentzat eta ezta ostalari eta merkatarientzat ere. Abuztuan normalean herritarrek kanpora joaten dira, eta herriko establezimenduak itxi egiten dituzte edo jarduna murrizten dute, sanbartolomeak arte. Aurten ez da horrela izango. Koronabirusaren eraginez establezimendu asko itxita egon dira, eta orain lan egin behar dute. Herritarrek ere ez daukate urrutira joateko asmorik, eta jairik ere ez da egongo. Dendari eta tabernariei galdetu diegu nola ikusten duten aurtengo abuztua.

- AINHOA ANDONEGI -



egin dugu lan gainera. Orain igarri dut nik beherakada. Eguraldi ona hasi denean bigarren etxebizitza dutenak joan egin dira, eta mugimendu gutxiago dabil".

AMAIA MENDIKUTE, Merkatu Plaza

"Normalean abuztuko lehen astean bakarrik egiten dut lan, eta ondorengo hiruretan itxita izaten dut denda, baina aurten zalantzan nago eta ez dakit zer egingo dudan. Erdiko bi asteak itxiko ditut nahiz eta hemen inguruan geratuko naizen, eta azken astean zer egin aurrerago erabakiko dut. Bezero batzuek esan didate Cadizera joateko plana zeukatela, baina bertan behera utzi dutela. Jendea beldurrez dago eta aurten jende asko geldituko da hemen inguruan, eguna pasatzeko planak egiten. Hemen gertu, kostaldean, bigarren etxebizitza dutenak joango dira, baina urrutirako plan askorik ez dut uste egingo dutenik aurten. Gu, zorionez, lanean egon gara konfinamendu guztian eta ondo

ANA ROSA OÑEDERRA, Fotero okindegia

"Urtero bezala egingo dugu lan abuztuan: goizez. Koronabirusaren eraginez salmentak apur bat jaitsi zaizkigula igarri dugu, batez ere konfinamenduaren hasieran. Guk denda zabalik geneukan arren, jendea etxean zegoen eta askoz mugimendu gutxiago izan genuen dendan. Hasierako egun haietan arratsaldeetan denda itxi egiten genuen, kalean ez zebilelako inor. Orain, hobeto ari gara lanean, eta ez dago besterik. Denda zabaldu eta lanean jarraitu behar dugu".



DONNA ILEAPAINDEGIA
Abuztuaren 8tik 26ra itxita.
Eskerrik asko, bezero!
Pedro Mugurutza etorbidea, 13
Elgoibar
943 744 388

ESARRI AUTOAK ZERBITZUA
MARKA GUZTIAK
943 741 480
Aitor: 606 975 730
Anton: 680 356 573
Faxa: 943 031 576 Olaso, 17 - Elgoibar

HYUNDAI
MAZDA

OIHANA MARTINEZ, Ene Bada jantzi-denda

“Aurten desberdina izango da guretzat abuztua. Normalean abuztuko lehenengo astean lan egin izan dugu, eta hilabeteko azken egunetan etortzen gara lanera, baina aurten luzatu egingo dugu eta bi astez bakarrik itxiko dugu. Nik oporrak hartu behar ditut eta horregatik itxiko dugu pare bat astez. Bezero askok esan digute aurten ez direla kanpora joango, eta hori jakinda herritarrei zerbitzua ematea erabaki dugu”.




IBON LARREA, Larre okindegia

“Udako hiru hilabeteetan goizez bakarrik egiten dugu lan, eta aurten ere modu berean egingo dugu lan, 14:00ak arte. Guri koronabirusak ez digu lan ordutegian eragin. Ogia saltzen dugu hemen eta iruditzen zaigu zabaldu behar dugula, bezeroei zerbitzua emateko. Ez dakigu zer mugimendu izango dugun abuztuan, baina gu hemen egongo gara. Sanbartolomeetan ere gaupasa egin ostean jende asko etortzen da hona gosaltzera, baina aurten jai ofizialik ez denez egongo, ez dakit norbait etorriko ote den.

Bezeroen artean beldurra nabari da, eta igartzen da jende gutxiago dabilela kalean, baina nik uste dut aurten jende gutxiago joango dela kanpora, eta pentsatzen dut horiek ogia erosiko dutela”.

AMAIA ARRIZABALAGA, Ziarda harategia

“Urtero bezala planteatu dugu aurtengo abuztua, eta orain arte bezala, goizez irekiko dugu, astelehenetik zapatara. Gure bezero batzuk bigarren etxebizitza daukate kostaldean, baina batzuek esan digute dagoeneko ez direla joango. Zarautzen etxea duten batzuek adibidez esan digute beldurra ematen diela hara joateak, malekoian jende asko ikusten delako”.



NEREA ALBERDI, Meraki ile-apaindegia

“Desberdina izango da abuztua aurten. Nik bihar hartuko ditut oporrak eta abuztuaren 11n lanean hasiko naiz berriz. Orain arte abuztuko azken bi asteak itxi izan ditut. Sanbartolomeetan Errosario kalean zezena ibiltzen da, eta Txiki Egunean ere hemen ezin izaten da lanik egin, eta horregatik aprobetxatzen nuen azken hamabostaldia oporrak hartzeko. Baina aurten jairik ez denez egongo, egutegia aldatzea erabaki dut. Bezero askok esan didate gainera aurten ez direla inora joango, eta dagoeneko badituzte zita batzuk lotuta abuztutarako. Urte arraroa da aurtengoa, eta egoera berrira egokitu egin behar izan gara”.



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

SURYA
 BELAR-DENDA
 Mila esker gure lana aurrera ateratzen laguntzeagatik.
 943 742 534 630 878 054
 surya-belardenda@hotmail.com
 San Frantzisko, 23 - Elgoibar

ENERITZ BURUNZA, Gabi jatetxea

"Orain arte beti itxi izan dugu abuztuan hiru astez San Bartolome jaiak arte. Urtean zehar diru pixkat gordetzen genuen abuztuan oporretara joateko, baina aurten ez dago horretarako aukerarik. Taberna itxita izan dugun denboran ere gastuak berdin-berdin ordaindu behar izan ditugu eta joan zaizkigu oporretara joateko aurreztutako diruak. Beraz, aurten txandaka ibiliko gara lanean eta aste-betez itxiko dugu, langileei oporrak eman behar dizkiedalako. Jairik ere ez da egongo aurten, eta hori ere gure kalterako da. Dena dela, bezperarako eta San Bartolome egunerako erreserba batzuk badauzkat dagoeneko. Baina oraindik hila-bete falta da eta egoera asko aldatu daiteke ordurako. Ez dakigu zein ordutegi izango dugun egun horietarako ere, eta zein baldintzatan zabaldu ahal izango dugun. Egoera arraroa da. Bezero asko ere dudatan daude: Opor egunak dituzte baina, kanpora joateak kezka sortzen die askori".



JUAN LUIS ASTIGARRAGA, Astigarraga kirolak

"Langileok txandaka hartzen ditugu oporrak abuztuan, eta hori dela eta, aste-betez itxen dugu denda. Aurten ez dugu itxiko. Hilabete guztian zehar irekiko dugu, baina goizez bakarrik. Uste dugu aurten jende gehiago geratuko dela herrian eta igarriko dela, baina pentsatu dugu arratsalde zabalteak ez duela merezi, jendea hemen egon arren ere hondartzara edo igerilekura joango delako arratsaldeetan. Alarma egoeran denda itxita eduki genuen, baina orain ondo ari gara lanean. Udalak martxan jarritako bono kanpainak ere asko lagundu digu eta nahiko pozik gaude. Aurrerantzean ea zer datorren!".



KAIET BLANCO, Lanbroa taberna

"Guretzat abuztua urteroko berdina izango da, eta zabalik edukiko dugu taberna ohiko ordutegian. Guk ez dugu inoiz itxen abuztuan, eta gero martxoan hartzen ditugu oporrak. Herriko taberna askok abuztuan itxi egiten dutela aprobetxatuta, guk zabaldu egiten dugu herrian geratzen direnei zerbitzua emateko, eta ondo egiten dugu lan. Aurten ere asmo berbera daukagu, baina ez dakit koronabirusarekin zein egoera izango dugun. Inguruko herrietan hasi dira berriz ere neurriak hartzen ostalaritzan, eta Elgoibarrera ere etor daiteke horrelako neurrien bat".



ARAMBURU
BITYXIDENDA

*Eskerrik asko, bezero,
pandemian gudan
izandako kofiantzagatik.*

San Frantzisko, 26 - Tel./faxa: 943 742 535 - Elgoibar

estetikaalire

Upaiz zaharra, 1 behea
alireestetica@hotmail.com
www.estetikaalire.com

943 531 636

Eskerrik asko, bezero!



Cristina Garcia 943 742 950

Estetika eta Terapia Naturalak

Abuztuaren 21era arte lan egingo dugu!
Gure ordutegia 09:00etatik 19:00etara izango da!
Aurrez aurretiko zitekin egingo dugu lan.

***Mila esker bezero guztiei
emandako konfiantzarengatik.***

Errosario kalea, 19 - Elgoibar - cgestetika@gmail.com

Eskerrik asko,
bezero!

KARKIZANO

688 76 00 21

 **ELGOIBAR** 

ELKARREKIN ARGITZEN DUGU

Eskerrik asko, bezero!



Gizonezkoen ile-apaindegia

JOSE ANTONIO

Zerbitzu bakoitzean, toalla eta erabili eta botatzeko bizar-xafiak ere sartzen dira, higiearen gaineko araudiak eskatzen duena beteaz.

HITZORDUA ESKATZEA BEHARREZKOA DA

- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar txukunketak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

Zalantza egoera dela eta, informazioa eguneratuko dugu:

www.peluqueriajoseantonio.com



Errosario kalea, 30 - Elgoibar
Tel: 943 741 492

AHOLKULARITZA

BIKAIN
ASESORIA

Tel: 943 744 557
Faxa: 943 740 408
e-posta: bikain@bikainasesoria.com

- Ⓢ Zerga-aholkularitza
- Ⓢ Lan-aholkularitza
- Ⓢ Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea - 20780 ELGOIBAR

Eskerrik asko, bezero!



Kirola, begi kolpe batean

Elgoibarko Udalak, Udal Kirol Patronatua eta Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailaren bitartez eta Ongarri Argazkilari elkartearekin lankidetzan, Elgoibarko Kirol Argazkien lehiaketa antolatu du aurten ere, eta dagoeneko eman du irabazleen berri. 52 lan aurkeztu dituzte guztira, eta orri honetan jaso ditugu saritutako argazkiak. Berez bost sari banatzea zen asmoa, baina hiru bakarrik emango dituzte aurten. Epaimahaiak saririk gabe utzi ditu Elgoibarko irabazlearen saria eta gazteen ataleko bigarren saria, argazkiek kalitate nahikorik ez zeukatela argudiatuta. Aurkeztutako argazki guztiak abuztuaren 22tik 30era jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean, 18:30etik 20:30era.

SARI OROKORRA

1. saria:

Sergio Nieves Prol (Ermua). 300 euro.

2. saria:

Javier Arcenillas (Alcobendas, Madril). 200 euro.

GAZTEEN SARIA

Mikel Taboada (Ermua). 300 euro.

Sergio Nieves Prol

Javier Arcenillas



Mikel Taboada





2020ko elektrogailuen Renove Plana

130€ra arteko dirulaguntzak! Agortu arte.



**MILAR
BIRE**

Mila esker, bezero!

Ubitarte, 11

943 741 487

bire@milar.es

*Egoera zailetan ere
beti zuekin.*

**PSE-EE
PSOE**



Eskerrik asko zuen erantzunagatik!



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.

FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
O KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

LANA.....
Eskaintza

Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Lanaldi osoko kontratua eskaintzen da. Interesatuak bidali curriculumarekin rekap.gipuzkoa@gmail.com helbidera.

Eskaerak

Neska arduratsua naiz eta lan egin nahi nuke. Adineko pertsonak zaintzeko nahiz garbiketa lanetarako prest nago.
☎ 642 325 499

Asteburuetan adinekoak orduka zaintzeko prest nago. Berehala hasteko prest.
☎ 632 344 209

Pinuak moztu edo antzerako basolanak egiteko prest nago. Adinekoak zaintzeko prest ere bai, eta baita sukaldari laguntzaile edo zerbitzaile lanetan aritzeko ere.
☎ 642 676 242

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest, interna moduan ere bai.
☎ 632 024 871

Edozein lan egiteko prest nago, orduka. Asteburuetan etxeko langile moduan ere bai.
☎ 643 246 279

Adinekoak zaintzen edo beste edozertan egingo nuke lan. Etxeko langile moduan nahiz bestela.
☎ 643 977 786

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo asteburuetan.
☎ 688 724 060

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka.
☎ 688 735 551

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan.
☎ 692 706 581

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 685 386 485

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Zaintza lanetarako sozio-sanitario titulua daukat.
☎ 666 197 831

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka eta asteburuetan ere bai.
☎ 631 611 201

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat baserriko lanetan, ostalaritzan eta eraikuntza-lanetan.
☎ 632 264 076

ETXEBIZITZAK.....

Etxebizitza salgai, duplexa, Bernardo Ezenarro kalean. 82 metro koadro ditu eta gela guztiek kanpoaldera ematen dute, hegoalderantz. Bista onak ditu. Trastelekua, garaje itxia eta igogailua.
☎ 685 722 131 / 635 715 503

Bi edo hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da. Erreferentziak ditut.
☎ 681 212 449

GARAJEAK.....

17 m²-ko garaje itxia alokatzen da Lekuederren. Sarrera musika eskola ondotik dauka. 3. solairua da.
☎ 629 526 683

<p>Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.</p>	<p>BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.</p>
--	--

  <p>ROSA Ma PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Jabeen batzar baterako deialdia bidali berri digute, eta lehentasun bereziki jotzen dudana bai bat dago. Jakin nahi nuke behin deialdia jabe guztiei bidalita, beste punturen bat gehitu daitekeen gai-zerrendan.</p> <p>Jabeen Batzarrean aztertu nahi den gai bat deialdian sartzea ahaztuz gero, deialdiaren osagarri bat bidali daiteke, zuzenketa gisa. Deialdiaren zuzenketa jabe guztiei bidali behar zaie batzarrean aurretik. Beraz, konpon daiteke, baina betiere jabe guztiek batzarrean aurretik jakiten badute zer gai landuko diren batzarrean.</p> <p>Irtenbide bera aplikatuko da jabe guztien batek aurretik eskatutako gairen bat lehendakariak ez badu gai ordenean sartu. Beraz, batzarreko deialdia egin ondoren etxeraren batek gai-zerrendan beste puntu bat gehitzea nahi badu eta lehendakariak onartzen badu, deialdia berriro bidali daiteke gai hori gehituta.</p> <p>Gomendioa. Legeak adierazten duena da ezin dela gai bat batzarrean aztertu, bilerara deitutako kideek ez badakite gai hori jorratuko zela, izan ere, jabe guztien batek jakin izan balu gai hori landuko zela bilerara joateko aukera izango luke. Beraz, irtenbidea litzateke jabe guztiei berriz ere komunikazio bat bidaltzea, gai-zerrendako puntuak osatu direla jasota, lehendakariari ahaztu zaion gaia gehituta.</p>
 <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>	



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Naiara**, abuztuaren 17an 10 urte beteko dituzulako. Besarkada handia familiako guztion partez.

Zorionak, **Leire**, uztailearen 29an 12 urte bete dituzulako. Familiako guztion partez.

Zorionak, **Julen!** Azkenean iritsi da eguna! Pila bat muxu, bereziki, Gorka, aitaitia eta amamaren partez.

Zorionak, **Ibon**, gaur 2 urte bete dituzulako. Familiako eta aitaitia amamaren partez. Muxu handi bat.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

b Jari ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarion edo www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 634 044

Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk.
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

OLAIA MARTINEZ
ESTETIKA ZENTROA

Trenbide kalea, 21 behe, ezk. Elgoibar
943 242 805

Edergintza eta erlaxazio tratamenduak

Leire
leopoldo de la piedad peluaria

Pedro Migel Urruzuno kalea, 10
943 256 105

Ile eta buru-azalerako tratamendu organikoak.

Abuztuaren egun hauetan zabalik
✦ Abuztuaren 4tik 7ra, goizez
✦ Abuztuaren 26tik aurrera

Eskerrik asko, bezero!

DOÑA MERCEDES
DENDA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
943 742 652

OBRADOREA
Olaso, 55 - Elgoibar
943 742 137

Abuztuaren 9ra arte zabalik, goizez

Mila esker, bezero!

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

aldaz
hortz klinikak

RPS233/13
Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22 Eibar
677 551 850

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 607 961 608
www.fisio-mas.com

RPS 183/12
Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando Urizar Barandiaran
R.P.S.: 32/17

Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitiko
Psikosomatika

Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Ballein kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

leku edero
hortz klinika

RPS 171/12
Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus

RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

SANBARTOLOMEAK

23 BEZPERA

Irailaren 7ra arte Edu Arrillagaren Photo kalean argazki erakusketa. Alde zaharrea sokamuturrean ateratako argazkiak jarriko ditu ikusgai, eta Errosario kalean, Txiki Eguneakoak.

13:00 Kanpai jotzea auzoetako ermita guztietan. Udaleko balkoia apainduko dute eta ikurriña makil-erdira jarriko dute.

17:00 CaixaBank masters pilota txapelketa ikastolako frontoian. Sarrerak Kaia tabernan salgai. Aforo mugatua. Zuzenean emango dute ETB1en.

23 SAN BARTOLOME EGUNA

09:00 Dultzaineroen diana.

09:45 Udal txistularien diana.

11:00 Meza nagusia. Ez da txistularirik egongo eta udal korporazioak ez du parte hartuko.

18:00 CaixaBank masters pilota txapelketa ikastolako frontoian. Sarrerak Kaia tabernan salgai. Aforo mugatua.

30 DOMEKA

11:30 Jubilatuen aldeko meza.

DOLMENEN IBILBIDEA

9 DOMEKA

10:00 Gaztelaniaz.

30 DOMEKA

10:00 Gaztelaniaz.

Ibilbide gidatuak 9 kilometroko luzera eta hiru ordu eta erdiko iraupena du, Karakaten hasi eta Irukeruzetarainoko joan-etorria. Ibilbidea erraza eta malda gutxikoa da, familiar egiteko aproposa. Bisita gidatuak Karakateko apartamentuetatik aterako dira, Soraluzean, goizeko 10:00etan. Aurrez izena ematea beharrezkoa da. Parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete 657 79 46 77 telefonora deituz edo info@begi-bistan.com helbidera idatziz. Ibilaldian parte hartzeko gomendatutako gutxieneko adina 7 urtekoa da.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK:

Egunez (*): 09:00-22:00

Iluntzean (*): 20:00-22:00

Larunbatak (*): 9:00-14:00

GUARDIAK 09:00 - 22:00

UZTAILA

30 Eguena *ORUESAGASTI / *BARRENETXEA
31 Barikua *BARRENETXEA / *BARRENETXEA

ABUZTUA

1 Zapatua *IBAÑEZ / *ARRIOLA
2 Domeka *IBAÑEZ /
3 Astelehena *BARRENETXEA / *BARRENETXEA
4 Martitena *ARRIOLA / *ARRIOLA
5 Eguaztena *FERNANDEZ / *BARRENETXEA
6 Eguena *ARRIOLA / *ARRIOLA
7 Barikua *ORUESAGASTI / *BARRENETXEA
8 Zapatua *BARRENETXEA / *BARRENETXEA
9 Domeka *BARRENETXEA / *BARRENETXEA
10 Astelehena *IBAÑEZ / *ARRIOLA
11 Martitena *BARRENETXEA / *BARRENETXEA
12 Eguaztena *ARRIOLA / *ARRIOLA
13 Eguena *FERNANDEZ / *ARRIOLA
14 Barikua *ARRIOLA / *ARRIOLA
15 Zapatua *IBAÑEZ /
16 Domeka *ORUESAGASTI
17 Astelehena *GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
18 Martitena *FERNANDEZ / *GARITAONANDIA
19 Eguaztena *GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
20 Eguena *YUDEGO / *YUDEGO
21 Barikua *IBAÑEZ / *GARITAONANDIA
22 Zapatua *YUDEGO / *YUDEGO
23 Domeka *YUDEGO / *YUDEGO
24 Astelehena *ORUESAGASTI / *GARITAONANDIA
25 Martitena *GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
26 Eguaztena *YUDEGO / *YUDEGO
27 Eguena *GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
28 Barikua *IBAÑEZ
29 Zapatua *FERNANDEZ / *GARITAONANDIA
30 Domeka *FERNANDEZ
31 Astelehena *YUDEGO / *YUDEGO

IRAILA

1 Martitena *ORUESAGASTI / *YUDEGO
2 Eguaztena *BARRENETXEA / *BARRENETXEA
3 Eguena *IBAÑEZ / *BARRENETXEA
4 Barikua *GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) - 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 - (Soraluze) - 943 751 384


* Urte guztian, gabez: 22:00-09:00

Barandela Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar) - 943 206 984


Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:
barren@elgoibarkolzarra.eus
Barreneko bulegora ekarri:
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.




Eskertzak eta urteurrenak 943 743 704 / 943 744 112
Aita Agirre Kulturguna, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



Luis Mari Isasmendi Alcorta

2020ko uztailaren 29an hil zen, 85 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Mari Tere Iraolagoitia Mendibe

2019ko uztailaren 31n
hil zen, 77 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko
meza izango da, domekan,
abuztuaren 2an, 11:30ean
Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi
aldez aurretik eskerrak.

*“Haurren hezitzaile ikastolan
onginahia eginez neba-arreba artean
zaindari eta babesle etxean
irrifarrea eta alaitasuna kalean
zuk irakatsitakoa daramagu besapean
mundu zabalean hedatzeko xedean
milesker guztiagatik, Mari Tere
beti eramango zaitugu bihotzean”*

Zure familia



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

GERTU

Gestora de Cooperativas

Iriondo eraikina

Pedro Muguruza, 2, ELGOIBAR



Eraikitzen:

AB ANTON BILBAO
GRUPO



- **Elgoibarko erdigunean.**
- **10 etxebizitza, 3 logelakoak. Logela guztiek kanpora ematen dute.**
- **Obra hasiera: 2020. urtearen amaiera.**

Informazio Gehiago

☎ 943 458 731 - ✉ info@gertugestora.com - www.gertugestora.com